## GAURKO FILMEAK

# Alain Delon, galana baino gehiago

ANDRES GOSTIN

Antenne 2 kateak Alain Delon aktore frantsesari eskainitako saio berezia emango du gaur gauean. Programak hiru zati izango ditu eta zenbait solasaldiren ondoren, aktoreak azken urteotan antzeztutako bi filme botako dituzte. Alain Delonen izaera bikoitza ulertzea berez zail samarra bada ere, bi tituluok ez digute aparteko laguntzarik emango, aktorearen azken lanek ez bait dute garai batekoen antzik, ezta urrik ere. Beti korrontearen aurka ibili arren, parametro desberdinetara moldatu da Alain Delon, bai klasikoen aginduetara, baita zinema beltz frantsesaren gustora ere. Azkenengo genero honetan, halaber, heroi bihurtu da denboraren poderioz. Telebistak egindako aukerak, kanpoan utzi ditu aktorearen rolik borobilenak, Antonioni, Losey, Visconti edo Melvillerekin burututakoak batez ere (goratu 'Rocco, 'Il gattopardo' edo 'Le samurai', besteak beste). Horren aurrean, Delonen paper berezi batzuk ekarriko ditu, sentibera agertuko bait zaigu Romy Schneider txoratzeko kapaz izan zen galana. Galana baino zertxobait gehiago izan zen aktore profesionala. Robert M. Youngen ('El alambrista') 'La fuerza de un ser menor' melodramatikoa eta 'Powaqqatsi' (Philippe Glassen musikan eta irudi soiletan oinarritutako lan ekologiko eta exotikoa), dira bestelako aukerak.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 09.05 | TVE1 | ○○○ | SENTIMIENTOS | 1986 | Jorge E.Coscia | 98 m. |
| 11.00 | T5 | ○ | DETECTIVE FOSTER | 1975 | Arthur Marks | 86 m. |
| 15.30 | A3 | ○○ | BACH Y BROCCOLI | 1986 | Andre Melançon | 96 m. |
| 17.05 | TVE2 | ○ | HABANERA | 1958 | J.M.Elorrieta | 94 m. |
| 20.45 | A2 | ○○ | MORT D´UN POURRI | 1977 | Georges Lautner | 120 m. |
| 20.50 | TF1 | ○ | LOVE STORY | 1970 | Arthur Hiller | 100 m. |
| 20.50 | L5 | ○○ | LES SOUS-DOUES | 1980 | Claude Zidi | 90 m. |
| 21.45 | TVE1 | ○○○○○ | DOS VECES YO | 1985 | Carl Reiner | 87 m. |
| 22.00 | C+(e) | ○○ | LA FUERZA DE UN SER MENOR | 1988 | Robert M.Young | 106 m. |
| 22.00 | T5 | ○○○ | LAS LOCAS AVENTURAS DE RABBI JACOB | 1973 | Gérard Oury | 91 m. |
| 23.47 | C+(e) | ○○○○ | POWAQQTSI | 1988 | Godfrey Reggio | 81 m. |
| 00.10 | A2 | ○○ | LE PASSAGE | 1986 | René Manzor | 90 m. |
| 00.30 | TVE2 | ○○ | CALE | 1987 | Carlos Serrano | 83 m. |

○ TXARRA ○○ ESKASA ○○○ BALEKOA ○○○○ ONA ○○○○○ BIKAINA

### LOVE STORY

**Zuzendaria:** Arthur Hiller.
**Aktoreak:** Ali McGraw, Ryan O'Neal, John Marley, Ray Milland.

Hogei urte geroago malkoak isurtzeko filmatu zen dramatxo pobrea iruditzen bazaigu ere, maitasun historia honetxek aztoratu egin zuen 70eko hamarkada. Neska gehienak errukitu egin ziren Ryan O'Neal gazteaz pelikula bukaeran, buru makur eta negar zotinka andragaiaren heriotza ahaztu ezinik. Orduko mutiko gazteak, ziplo eginda geratu ziren Ali McGraw leuzemiak jota hil zenean, bere aurpegiaz enamoratuta ordubete pasa ondoren. Eta ikusle orok hamaika bider errepikatu zuen Frances Lairen musika astun eta faltsua. Orduan, gaur bezala, 'Love story' maitasun ipuin kaskarra da, melosoegia, pastel hutsa. Orduan, ordea, egundoko arrakasta izan zuen. Zergatik?

### DOS VECES YO

**Zuzendaria:** Carl Reiner.
**Aktoreak:** Steve Martin, Lily Tomlin, Madolyn Smith.

Carl Reiner eta Steve Martin pantaila txikira hurbilduko dira berriro nortasun bikoitzaren arazoarekin. 'El hombre con dos cerebros' izeneko filmea eskaini baziguten duela egun batzuk, erdi gizonezko erdi emakume bihurtuko den abokatu baten pasadizoak ekarriko dituzte gaurko komedian. Carl Reinerrek ofizioz egiten badu lan, ezin da gauza berdina esan Steve Martinen antzezpenaz, umorerik ez izateaz gain, *gag* eta egoera errazegietara jotzen bait du. Ohi duen moduan, bestalde.

### LAS LOCAS AVENTURAS DE RABBI JACOB

**(Les aventures de Rabbi Jacob)**
**Zuzendaria:** Gérard Oury.
**Aktoreak:** Louis de Funes, Suzy Delair, Marcel Dalio, Claude Giraud.

Louis de Funes, Frantziako komeriante nazionala, bahiketa baten erdian korapilatuko da, endreduak bait dira, azken batean, aktoreari gehien gustatzen zaizkion egoerak. Rabino jantzirik, Parisera abiatuko da alabaren ezkontzara, baina aireportuan bahiketa bateko lekuko izango da, lekuko eta biktima. De Funesen beste bat, ateraldi merkeez egina.

### LE PASSAGE

**Zuzendaria:** René Manzor.
**Aktoreak:** Alain Delon, Christine Boisson, Alain Musy.

Alain Deloni eskainitako bi filmeak nahiko parekoak badira ere, kalitateari dagokionez behinik behin, 'Le passage-k' bestelako Delon bat ikusteko aukera eskainiko digu, Delon samur eta sentibera, Delon aita, oso urrun *flic* paperetik. Aktoreak zuzendari baten rola beteko du gainera, zuzendari eta idazle izango da denbora berean. Mundua suntsitu nahi duen erakunde batek semea bahituko dio, berak ere parte har dezan unibertsoa desegiteko proiektuan, eta orduan, Delon zuzendaria Delon aita bihurtuko da. Pelikulak, egia esan, ez dauka beste munduko ezer, arrunta da, oso arrunta, baina aktorearen interpretazioak badu meriturik, interpretazioa bait da, bere zentzurik zabalenean.

### CALE

**Zuzendaria:** Carlos Serrano.
**Aktoreak:** Mónica Randall, Rosario Flores, Joan Miralles, Antonio Flores.

Izenburuak nahikoa adierazten du pelikularen nondik norakoak gertutik ezagutzeko. Pygmalionen mitoari buruzko errekrazioa baino ez da. Emakume bat aktorea izango da, eta bestea, ijitoa. Musika, dantzak eta Flores anaiak kamaren aurrean.

ETB2
TRIBUNA GOL (Kirola) 21:35

A3
DE TU A TU (Magazina) 22:10

TVE1
EN PORTADA (Erreportaiak) 23:35

T5
ENTRE HOY Y MAÑANA (Albistegia) 23:50

**LA CINQ 5**

06.00: **Le journal permanent.** 07.15: **Demain se décide aujourd'hui.** 07.20: **Youpi!.** 08.35: **Parlez-moi d'amour.** 09.00: **Les secrets de la mer rouge.** 09.30: **Les hommes de rose.** 10.30: **Ça vous regarde.** 11.30: **Cas de divorce.** 11.55: **Que le meilleur gagne.** 12.40: **Météo.** 12.45: **Le journal.** 13.30: **Arabesque.** 14.25: **L'inspecteur Derrick.** 15.25: **Soko, brigade des stups.** 16.25: **En direct des courses.** 16.50: **Youpi, l'école est finie!.** 17.10: **Star Trek.** 18.00: **Mission casse-cou.** 19.00: **La ligne de chance.** 19.40: **Bonsoir ma série.** 20.00: **Le journal.** 20.40: **Le journal des courses.** 20.50: **«Les sous-doués».** 22.30: **Ciné cinq.** 22.45: **Tendre libertine.** 00.20: **Bruits de Cannes.** 00.30: **Journal de la nuit.** 00.40: **Demain se décide aujourd'hui.** 00.45: **Club du telé-achat.** 01.00: **Cas de divorce.** 01.30: **Les secrets de la mer rouge.** 02.00: **Les hommes de rose.** 02.55: **Voisin voisine.** 03.55: **Tendresse et passion.** 04.20: **Voisin voisine.** 05.20: **Tendresse et passion.** 05.45: **Ciné cinq.**

**M6**

06.00: **Boulevard des clips.** 07.00: **M6 express.** 07.05: **Contact 6 «manager».** 09.05: **M6 boutique.** 11.35: **Cher oncle Bill.** 12.05: **Hit Hit Hit Hourra.** 12.10: **Papa Schultz.** 12.40: **Ma sorciere bien-aimée.** 13.10: **Cosby show.** 13.40: **Les saintes chéries.** 14.05: **Cagney et Lacey.** 15.40: **Bleu, blanc, clip.** 16.40: **Drôles de dames.** 17.30: **Hit Hit Hit Hourra.** 17.35: **Zygomusic.** 18.05: **Espion modele.** 19.00: **La petite maison dans la prairie.** 19.54: **6 minutes.** 20.00: **Cosby show.** 20.35: **Le mardi, c'est permis...** 22.15: **Un amour d'été.** 23.55: **Dazibao.** 00.00: **Doulevard rock'and hard.** 02.00: **Réserves naturelles d'Afrique.** 02.50: **La face cachée de la terre.** 03.20: **Le glaive et la balance.** 04.10: **Les Indiens des Andes.**

**CANAL+**

07.00: **CBS evening news.** 07.25: **Canaille peluche.** 07.45: **Ça cartoon.** 08.05: **24 heures.** 09.00: **La collection perdue.** 10.35: **Flash info.** 10.40: **Le journal du Festival.** 10.45: **«Le prix de la passion».** 12.30: **La grande famille.** 13.30: **«Les bijoutiers du Clair de Lune».** 15.10: **Mon zénith a moi.** 16.05: **«Désorganisation de malfaiteurs».** 17.40: **Surprises spécial Cannes.** 18.05: **Canaille peluche.** 18.30: **Ça cartoon.** 18.50: **Top 50.** 19.20: **Nulle part ailleurs.** 20.30: **«Liaison fatale».** 22.30: **Le journal du Festival.** 22.35: **«Quelle heure est-il».** 01.25: **«Et dieu créa la femme».** 02.50: **Surprises spécial Cannes.**

**TELE 5**

08.00: **La abeja Maya.** 08.30: **VIP guay.** 09.00: **Orsi.** 09.30: **Enamorarse.** 10.15: **María, María.** 11.00: **«Friday Foster».** 12.45: **La revancha.** 13.30: **Las aventuras de Hacchy.** 14.00: **Entre platos anda el juego.** 14.40: **Señora.** 15.30: **Lazos secretos.** 16.30: **Hotel.** 17.25: **Super guay.** 19.00: **VIP guay.** 19.30: **Topacio.** 20.30: **Campeones.** 20.55: **Hoy.** 21.00: **Telecupon.** 21.15: **Su media naranja.** 22.00: **«Las locas aventuras de Rabbi Jacob».** 00.00: **Entre hoy y mañana.** 00.30: **¿Hablando se entiende la gente?.** 01.30: **Las chicas con las chicas.**

**A3**

07.15: **Aula 3.** 08.00: **La guardería.** 09.30: **Noticias.** 09.33: **Viva la vida.** 10.30: **Pasarela.** 11.20: **Tan contentos.** 11.30: **Noticias.** 12.00: **Santa Barbara.** 13.30: **Noticias.** 14.00: **Embrujada.** 14.30: **Los segundos cuentan.** 15.00: **Noticias.** 15.30: **«Bach y Broccoli».** 17.15: **Noticias.** 17.18: **La merienda.** 18.45: **Noticias.** 18.48: **Bonanza.** 19.45: **La ruleta de la fortuna.** 20.30: **Noticias.** 21.00: **El coche fantastico.** 22.00: **Noticias.** 22.01: **De Tu a Tu.** 23.00: **Diamantes.** 00.00: **Noticias.** 00.15: **La casa del terror.** 01.00: **Hospital general.** 01.45: **La intrusa.**

**CANAL+**

08.00: **Noticias.** 08.10: **ABC world news.** 08.35: **El gran musical.** 09.30: **Lo + Plus.** 10.00: **«Pasiones en Kenia».** 11.44: **«Contra toda ley».** 13.30: **Los 40 principales.** 14.00: **Dibujos animados.** 14.25: **Noticias.** 14.30: **«Grita libertad».** 17.02: **«B.A.G.».** 18.30: **«Nacido al este de Los Angeles».** 19.50: **Cazafantasmas.** 20.15: **Redacción.** 20.20: **Los primeros de la clase.** 20.40: **Los 40 principales.** 21.05: **Primos lejanos.** 21.30: **Noticias.** 22.00: **«La fuerza de un ser menor».** 23.47: **«Powaqqatsi».** 01.27: **Musica noche.**

## IRRATIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Arrate Irratia. | FM 87.7 | Gure Irratia. | FM 89.6 |
| Bizkaia Irratia. | FM 102.6 | Irulegi Irratia. | FM 93.1 |
| Egin Irratia. | FM 103.0 | RNE-Lau Irratia. | FM 92.2 |
| Euskadi Irratia. | OM 1.161 | Segura Irratia. | FM 89.2 |
| Euskalerria Irratia. | FM 91.0 | Xiberoko Botza. | FM 98.6 |
| Gipuzkoa Herri Irra. | FM 99.8 | Xorroxin Irratia. | FM 107.5 |

**Euskal Herria Irratia.** Nafarroako unibertsitate publikoan hauteskundeak direla eta, 'Zabalik' ikasleen kandidaturako zenbait partaiderekin solasalditxoa.

**Segura Irratia.** Eguerdiko ordubatean Fiat lehiaketa. Arratsaldeko seietatik aurrera, 50, 60 eta 70.eko musikari eskainitako irratsaio berezia.

**Gipuzkoako Herri Irratia.** 'Herri plaza' goiz magazinean, herrietako informazioa, lehiaketak, erreportaiak, elkarrizketak, interes orokorreko gaiak: osasuna, kontsumoa... (11.00etan).

**Irulegi Irratia.** Bertsolarien emankizunean, 1971ean Lasarte bertsolariaren omenaldian botatako bertsoak entzuteko aukera izango da. Xalbador, Mattin, Azpillaga eta Lopategiren bertsoak gaueko 9etan.

**Euskadi Irratia.** 'Iturri onetik' saioan, Jesus Altuna Arantzadiko arduraduna izango da elkarrizketatua.

**RNE-Lau Irratia.** 'Gure artean, gurea' saioko lehenengo ordubetean, Amaia Zubiriak 'Rudi Mutturko txerri lasterkaria' ipuinetik zenbait pasarte irakurriko ditu.